

Kultur programazioak hainbat berritasunekin abiatuko du 2025 urtea

- **Musikaz, dantzaz, antzerkiaz... gozatzeko aukera izateaz gain, ziklo berria ere estreinatuko da urte honetan: Bastero-kafe**

Andoainen, 25-01-10.- Abiatu dugu urte berria eta horrekin batera, urtearen lehen hiruhilekoaren kultur-programazioa aurkeztea ere badagokigu. Ohi moduan, askotariko diziplinak bilduko ditu urtarriletik martxora bitarteko eskaintzak, erakusketetatik hasi, zuzeneko musika emanaldi, antzerki, eta dantza emanaldietatik pasaz, besteak beste. Indartsu hasiko dugu zikloa gainera, Janus Lester musika taldearen bisita izango baitugu urtarrilaren 17an; ‘Lore’ disko berria aurkeztera etorriko dira. Musikari dagokionez, beste eskaintza indartsua ere izango dugu martxoaren 7an, Emakumeen Nazioarteko egunaren testuinguruan: Verde Prato eta Anari, bi emakume feminista eta ahaldunduren emankizuna. Biak ere euren disko berria aurkeztera etorriko dira.

Antzerkian ere arrasto handiko emanaldiak izango ditugu: batetik, Arte-Drama konpainiak ‘Miñan’ oholtzaratuko du urtarrilaren azken egunean, migrazioaren drama lehen lerrora ekarri. Hika teatroak, berriz, ‘Zorretan’ antzezlanak ekarriko du otsailaren 14an, lehen leerroan dagoen zaintzaren gaia landuz. Vaivén producciones konpainiak, amaitzeko, ‘El patio de las moreras’ eszenaratuko du, honek ere zaintza izango duela zehar-lerro. Txikienei zuzendutako antzezlanak ere izango dira, Gorakada teatro konpainiak ‘Moko’ lana ekarriko du martxoan, eta urteroko zita izan ohi den Porrotx eta Marimotots ere izango dira Basteroko oholtza nagusian, oraingo honetan Pupu eta Lorek lagunduta (urtarrilaren 26an).

Dantzaz gozatzeko tarteak ere izango dira martxoan, Haatik konpainiak ‘Ots’ ekarriko baitu, Jone San Martin dantzari eta sortzaile donostiarrak sortutako koreografiarekin.

Bastero-kafe, ziklo berria

Urtea hastarekin bat, ziklo berria ere estreinatuko du Bastero Kulturguneko programazioak. ‘Bastero-kafe’ deituko da, kafe-kontzertuen edo kafe-antzekietan oinarritutako filosofia izango du: zuzeneko musika edo antzezlan labur batez gozatzeko aukera izango dugu mahaia partekatuz eta kontsumizio bat hartuz.

Ziklo berria estreinatzeko gisa honetako hiru emanaldi izango ditugu: urtarrilaren 24an ‘Musika akuarelak’ emanaldia (Arkaitz Mendoza eta Naroa Intxaustirekin), otsailaren 21ean Kanbalatxe Tango taldearen emanaldia eta martxoaren 28an ‘Ez dogu zor ezer’ emanaldia Ainara Ortega eta Joaquin Chacón jazz bikotearekin. Emanaldi hauek Bastero Kulturguneko Ekitaldi aretoan izango dira.

Honetaz guztiaz gain, futbolzaleek ondo dakite Andoaingo herriari loturiko nazioarteko futbolari bat izan genuela herrian: Isidro Langara handia. Mundu mailan leku nabarmena eta aitortua du Langarak, eta Andoainen ere merezitako omenaldia eskaini nahi zaio. Horregatik, otsaileko hilabetean zehar bi emanaldi antolatu dira.

Bazkietza berritzeko une egokia

2025.urtea hasi dugunez, herritarrei gogorarazi nahi zaie une egokia dela Bastero Kulturguneko bazkide egiteko. Bazkietzak onura ugari dakartza: Kultura sailak antolatutako ikuskizun guztietan %25eko beherapena, urtean zehar bi emanaldietarako sarrera doan, eta baita zinerako beste bi sarrera doan ere, etabar. luze bat (www.bastero.eus –en kontsulta daitezke onura guztiak). Kultura Sailak herritar guztiak animatu nahi ditu bazkietza egitera eta kulturaz goatzera!